



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

7f81e13d15878bc32253ebe5ed568759af21385f577ce8e84efc8c3aab076d58

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2022KO APIRILAREN 8AN EGINDAKO APARTEKO ETA PREMIAZKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2022.04.08

Tolosako Udaletxean, 2022ko apirilaren zortzian, 18:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Aparteko eta Premiazko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV).
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)
Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)

Parte hartu ez duen zinegotzia:

Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso



Gai-zerrenda

1. Bilkuraren premiatasuna onartzea.
2. Onartzea alkatearen proposamena, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralaren emakida-kontratua luzatzeko.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. BILKURAREN PREMIATASUNA ONARTZEA.

Aparteko bilkura honen premiazko izaera bozkatu egin da, eta Erakunde Lokalen Organizazio, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Araudiko 79. artikulua agintzen duena kontuan izanik, bilkuran izan diren batzarkideek aho batez berretsi dute gaia premiazkoa dela.

2. ONARTZEA ALKATEAREN PROPOSAMENA, TOLOSAKO UDAL KIROL-INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALAREN EMAKIDA-KONTRATUA LUZATZEKO.

I.- IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Xedea	Tolosako udal instalazioen kudeaketa integralaren emakida
Unitate sustatzailea	Kirol Saila
Espedientea	TOLOSA LANTZEN SA erakundetik eratorritako espedientea

II.- AURREKARIAK

Lehen.- 2005eko irailaren 1ean, KIROLZER SLk eta TOLOSA LANTZEN SAK Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralaren emakida-kontratua formalizatu zuten hamar urterako. Halaber, kontratu hori beste 5 urtez luzatu zen, 2020ko abuztuaren 31 arte.

Bigarrena.- Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zen, eten egin ziren sektore publikoko erakundearen prozedurak izapidetzeko baldintzak eta epeak, eta aipatutako Errege Dekretuak edo, hala bazegokion, Errege Dekretu horren luzapenak indarra galtzen zuen unean hasiko zen berriz epeen zenbaketa. Baldintzak eta epeak etetea Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean definitutako sektore publiko osoari aplikatu zaio, eta horien artean dago toki-administrazioa.

Hirugarrena.- COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko, 8/2020 Errege Lege Dekretuak, martxoaren 17koak, ezohiko premiazko neurri buruzkoak, zenbait neurri ezarri zituen kontratu publikoak eteteak enpleguan eta enpresa-bideragarritasunean izan ditzakeen ondorio negatiboak saihesteko. Xedapen horiek helburu zuten, batetik, ez zitezela kontratu publikoak suntsitu, eta, bestetik, administrazioek hartzen zituzten erabakiek ez zezatela egiturazko eragin



negatiborik izan ekoizpen-sarearen zati horretan. Neurri horiek, oro har, SPKLren 208. artikulua berriazko aldaketa ekarri zuten, bai eta emakiden berroreka ekonomikoari buruzko doktrinaren aldaketa ere, baina horien aplikazio zehatza kontratu bakoitzerako zehazki aztertu behar da.

Laugarrena.- Horiek horrela, 2020ko apirilaren 21eko 2020/599 Alkatetza Dekretuaren bidez, kontratuei buruzko instrukzioa onartu zen Tolosako Udalean, eta instrukzio hori kontratista guztiei bidali zieten kontratuen udal arduradunek.

Bosgarrena.- Horiek horrela, TOLOSA LANTZEN SA erakundearen administrazio kontseiluak, 2020ko uztailearen 30ean egindako bileran, KIROLZER SL enpresak egindako eskaera onartu zuen. Hona hemen akta horren zati bat:

«7.- AZTERTZEA KIROLZER SL ENPRESAK TOLOSAKO UDALAREN KIROL-ERAIKINEN KUDEAKETA INTEGRALERAKO KONTZESIOAREN OREKA EKONOMIKOA BERRESKURATZEKO EGIN DUEN ESKAERA, COVID-19AREN KRISIA DELA ETA.

Teknikariak azaldu du AB20117 kirol txostena.

Kontuhartzaileak azaldu du 8/2020 Errege Dekretuaren 34.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz egindako kalkulua.

Horiek guztiak kontuan hartuta, Kontseiluko kideek, aho batez, onartu dute:

Lehen: 8/2020 Errege Lege Dekretuko 34.4 artikuluan aipatzen diren ezohiko neurriak hartzea aipatutako kontratuaren emakidadunaren berroreka ekonomikoa lortzeko.

Bigarrena: Kirolzer SLk aurkeztutako Tolosako Udalaren kirol-erakinen kudeaketa integralaren kontzesioa ustiapen-kontuaren datu ekonomikoak hasiera batean ontzat ematea luzatze kalkulua egiteko, baldin eta emakidadunak emandako datu ekonomikoak auditoretzak berresten baditu, 8/2020 Errege Lege Dekretuko 34.4 artikuluan ezarritako egiaztapen frogagarritzat hartzeko asmotan.

Hirugarrena: COVID-19 pandemiak eragindako desoreka ekonomikoa orekatzea, 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretuko 34.4 artikulua xedatzen duenaren arabera, "la ampliación de su duración inicial hasta un máximo de un 15 por 100", kontratua 16 hilabetez luzatzea, 2021eko abenduaren 31 arte. Emakidadunak aurkeztutako datu ekonomikoaren arabera, ustiapen-kontuaren berroreka ekonomikoa lortzeko denbora izan dezan.

Laugarrena: Interesatuari eta Tolosako Kontuhartzaitza, Kontratazio eta Kirol Sailei erabakiaren berri ematea».

Akta horretan jasotzen da emakidadunari kontratua luzatzeko erabakia, 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 30era, itxita egotetik eratorritako galerak konpentsatzeko. TOLOSA LANTZEN SA erakundeko teknikariak egindako kalkuluen arabera, galera horiek 326.414,58 eurokoak izan ziren, eta horrek kontratua 16 hilabetez luzatzeko aukera ematen zuen. Horrenbestez, **kontratua 2021eko abenduaren 31 arte luzatu zuten.**

Seigarrena.- 2020ko irailaren 24an, Udaltzaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen TOLOSA LANTZEN SA erakundearen aktibo eta pasiboak Tolosako Udalaren alde lagatzea. Horren berri eman zitzaien emakidadunari legearen arabera.

Zazpigarrena.- 2020ko abenduaren 31n, TOLOSA LANTZEN SA erakundea desagertu egin zen.



Zortzigarrena.- 2021eko maiatzaren 10ean, KIROLZER SL enpresak egindako eskaera sartu zen udal erregistroan, 2021-4755 zenbakiarekin. Bertan, honako hau eskatu zuen:

«(...)

d) Se propone:

De forma principal, como mecanismo de equilibrio del déficit de 2020, modificar para el año 2021 la condición económica del contrato relativa al canon fijo a abonar (294.257,52 euros) por Kirolder SL, en el sentido de reducirlo en los 160.755,12 euros aun pendientes de equilibrar, de modo que dicho canon fijo quede establecido para 2021 en la cifra de 133.502,40 euros.

Subsidiariamente a la propuesta anterior, en su caso, se propone la aportación económica a Kirolder SL por importe de 160.755,12 euros.

De uno u otro modo, debe equilibrarse el resultado de explotación de 2020.

Con base en lo expuesto, respetuosamente SOLICITO AL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA: Que, teniendo por presentado el presente escrito con sus alegaciones, y documentación adjunta, se sirva atender la reposición del equilibrio económico financiero del contrato en el ejercicio 2020 conforme los términos planteados».

Bederatzigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, 2021eko irailaren 30ean egindako ohiko osoko bilkuran, besteak beste, honako hau onartu zuten:

«Lehena.- Tolosako udal-instalazioen kudeaketa integralaren emakida-kontratuan KIROLZER, SL enpresak egindako eskaera onartzea, 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 30era artean izandako itxieratik eratorritako galerak konpentsatzeko.

Bigarrena.- TOLOSA LANTZEN, SA erakundeak onartutako konpentsazioa berraztertzea emakida berrorekatzeko mekanismoari dagokionez, errekupeazio-erritmoa 2021eko egoeraren errealitatera egokitzeko. Horrela, hilean 20.000 euroko errekupeazio-erritmoa izan ordez, 10.000 eurokoa dela onartzea.

Hirugarrena.- Aurrekoaren ondorioz, enpresak galdutako 326.414,58 euroak berreskuratzeko 16 hilabeteren ordez, 33 hilabete behar direla onartzea.

galerak	326.141,58
lehen	orain
20.000 euro/hilean	10.000 euro/hilean
16 hilabete	33 hilabete
aldea	17 hilabete

Laugarrena.- 33 hilabete horiek honela banatzea:

- 19 hilabete kontratua luzatuz (lehen 16 onartu ziren).

- 14 hilabete dirutan konpentsatzea, lehen esan bezala 10.000 euro hilean kalkulatuta.

Bosgarrena.- Onartzea, aurrekoaren ondorioz, kontratuaren epea 2022ko martxoaren 31ra arte luzatzea eta ordaindu beharreko 140.000 euroak (14 hilabete x 10.000 euro/hilean) emakidadunak ordaindu beharreko kanonetik kentzea.

Seigarrena.- Erabaki honen berri ematea Ogasun eta Administrazio Finantza Sailari, Kirolak Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari».

Hamargarrena.- Aurrekoaren ondorioz, 2022ko martxoaren 31 arte luzatu zuten kontratua.

Hamaikagarrena.- 2021eko otsailaren 5ean, Tolosako kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratu berriaren lizitazioaren aurretiko iragarkia argitaratu zen Europar Batasunaren Egunkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60045-2021-ES). Halaber, Udalbatzak, 2021eko irailaren 30ean egindako ohiko bilkuran, besteak beste, Tolosako kirol-instalazioen



kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren (2021CSER0002) adjudikazioa kontratatzeko prozedura onartu zuen, eta hasiera eman zion lizitazioari.

Hamabigarrena.- Administrazio-prozedura guztia legearen arabera egin ondoren, SPKLn eta aplikatzekoa den gainerako legerian xedatutakoaren arabera, kontratazio-mahaiak 2022ko otsailaren 8an proposatu zion kontratazio-organoari BPXPORT XXI SL enpresari adjudikatzea Tolosako kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratu (2021CSER0002), enpresa horrek lortu baitzuen puntuaziorik handiena lizitazioan. 2022ko otsailaren 23an Udalbatzaren Osoko Bilkurak BPXPORT XXI SL enpresari adjudikatu zion kontratua eta horren berri eman zitzaion lizitatzailerak eta hautagai guztiei.

Hamahirugarrena.- 2022ko martxoaren 28an, KIROLZER SL enpresak kontratuei buruzko errekurtso berezia jarri zuen Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan (KEAO-OARC).

Hamalagarrena.- Horiek horrela, 2022ko martxoaren 31n bukatzen zen kontratuaren iraupena, ezohiko luzapenak barne, eta ezin da 2021CSER0002 espedientetik eratorritako kontratua formalizatu Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (OARC) ebazten duen arte.

Hamabosgarrena.- 2022ko martxoaren 31n Kirolak Sailak igorritako txostenean honako hau eskatu zuen:

«Horregatik guztiagatik, proposatzen dut frogatuzat jotzea interes publikoko arrazoiak daudela ez eteteko Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integrala emateko kontratua, zeina 2022ko martxoaren 31ra arte indarrean zegoen, eta bilatu dezatela formula juridikorik onena kontratu hori luzatzeko, harik eta ebazten duten arte Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integrala emateko kontratuaren esleipenari jarritako errekurtsoa».

Hamaseigarrena.- 2022ko martxoaren 31n kontratazioko AOTak igorritako txostenean hau esaten du modu laburtuan:

«Sinatzen duen honek ez du zalantzan jartzen interes orokorreko arrazoiak daudela udal-instalazio guztiak martxan mantentzeko, baina 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, ez ditu kirol jarduerak funtsezko zerbitzutzat aitortzen.

Eskualdean Tolosako kirol-instalazioak erreferentzia izateak, edota instalazioak ixteak sortuko lituzkeen kalte ekonomikoek, sozialek eta politikoek ez lukete ekarriko, teknikari honen iritziz, legez kontrakoa den kontratuaren luzapen bat egitea; administrazio arduratsu baten betebeharra baita edozein lizitazio publikotan gerta daitezkeen gertakariak, guztiz aurreikus daitezkeenak, saihesteko edo arintzeko beharrezko neurriak hartzea».

Hamazazpigarrena.- 2022ko apirilaren 6an udal kontuhartzaileak luzapenaren aldeko txostena igorri du.

III.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Tolosako udal instalazioen emakida-kontratuaren lizitazioa onartu zenean, 2005. urtean, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2/2000 Errege



Legegintza Dekretuak agintzen zuen; beraz, lege hori izango da kontratuaren indarraldi osoan zehar aginduko duena.

Aipatu bezala, Herri Administrazioen Kontratuak buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak 67. artikuluan hau zehazten du, oro har, kontratazio espedienteei buruz:

«67. artikulua.- Kontratazio-espedientea.

1. *Lege honen arabera esleitu beharreko kontratuetan, aldez aurretik, kontratazio espedientea izapidetu behar da, eta kontratazio-espediente hori kontratazio organoak hasi behar du horren beharra justifikatuta. Espedientearekin batera, kontratua arautuko duen administrazio-klausula zehatzen agiria eta preskripzio tekniko zehatzen agiria erantsi behar dira, eta bertan ondo zehaztuko dira kontratuaren iraupen-epea, eta, halakorik jasota badago, kontratua denboran luzatzeko aukera ere bai; halakoetan, esanbidez zehaztu behar da beti luzapenaren norainokoa, luzapenak ezin izango baitira inoiz isilbidezko elkarren adostasunez egin».*

Beraz, argi geratzen da kontratuaren luzapenak aurreikusita egon behar direla dagokion pleguan. Kasu honetan, administrazio-pleguko «IV. Plazo de concesión» atalean hau zehazten da:

«La concesión se otorgará por un plazo de diez (10) años a contar desde la fecha de formalización del contrato de adjudicación del concurso y será prorrogable una única vez por un plazo máximo de cinco (5) años más».

IV.- ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA

Honi buruz, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 82.4 artikuluan hau zehazten du:

«4. Entzunaldiaren izapidea egin gabe utz daiteke prozeduran ez bada azaltzen eta ebazpenean ez bada kontuan hartu interesdunak azaldutako egitate, alegazio eta frogak besterik».

Kasu honetan ez da entzunaldi-izapiderik egin behar, egun kirol-instalazioak kudeatzen dituen enpresak izan baitu luzapenaren aldeko kontratazio organoaren informazio zehatza eta puntuala.

V.- EMAKIDADUNAREN ONESPENA

Aipatu bezala, Herri Administrazioen Kontratuak buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak 101. artikuluan hau zehazten duen kontratuen aldaketak buruz: «2. Legeko 54. artikuluan xedatutako moduan formalizatu behar dira kontratu aldaketak». Eta artikulua horrek hau dio:

«54. artikulua.- Kontratuak formalizatzea.

1. *Administrazioko kontratuak administrazio-agirian formalizatuko dira, esleipenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasi eta hogeita hamar eguneko epean. Agiri hori nahiko titulu da edozein erregistro publikora aurkezteko; baina, kontratistak eskatzen badu, eskritura publiko bihur daiteke, eta bere kontura izango dira eskritura publikoa egiteak sortutako gastuak.*

2. *Lege honetan ezarritako salbuespenak alde batera utzita, kontratua formalizatzeko beharrezko betekizuna izango da enpresaburuak legean jasota dauden bermeak jartzea interes publikoen*



babes moduan.

3. Kontratastari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, aipatutako epean kontratua formalizatu ezin bada, Administrazioak kontratua suntsiaraztea erabaki lezake, interesdunari entzutea beharrezko izapidea bada ere; eta kontratista aurka jartzen bada, Estatu Kontseiluaren txostena behar da, edo autonomia-erkidego bakoitzeko aholku-organo baliokidearena. Kasu horretan, bidezkoa izango da behin-behineko bermea inkautatzea, eta eragindako kalte eta galeren kalte-ordainak jasotzea.

Administrazioari egoztekoak badira kontratua formalizatu gabe gelditzeko arrazoiak, berandutzea dela-eta kontratastari sor dakizkiokeen kalte eta galeren kalte-ordaina emango zaio, eta kontratastak kontratua suntsiaraztea eska dezake 111. artikuluko d) idatz-zatiaren babespean.

4. Ezin izango da kontratua gauzatzen hasi, aurrez formalizatu ez bada, 71. eta 72. artikuluetan aurreikusitako kasuetan izan ezik».

Beraz, aurrekoa kontuan hartuz, emakidadunari jakinarazi beharko zaio kontratazio-organoak hartutako erabakia, eta ondoren, dagokion kontratuaren aldaketa sinatu beharko da. Aldizkari Ofizialetan eta Kontratatzailearen Profilean argitaratu beharko da hori.

VI.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak (2004ko urtarrilaren 1etik, 2007ko uztailaren 1 arte indarrean egon zen bertsioan) 22. artikuluan hau zehazten du udalbatzaren eskumenei buruz:

«n) Era guztietako kontratuak eta emakidak, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arruntan 100eko 10a gainditzen badu, eta beti sei milioi euroko kopurua gainditzen badu; horien artean sartzen dira, halaber, urte anitzeko kontratuak eta emakidak ere, epea lau urtetik gorakoa denean, eta epe laburragoko urte anitzekoak urtealdi guztietako zenbateko metatuarekin lehen esandako ehunekoa gainditzen bada, lehenengo ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntak erreferentziatzen hartuta, eta beti letra honetan aipatutako zenbatekoa baino handiagoa bada».

Gogorarazi behar da, emakida-kontratu hau TOLOSA LANTZEN SA erakundeak lizitatu zuela eta, 2020ko irailaren 24an, Udalbatzaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuela erakundearen aktibo eta pasiboak Tolosako Udalarri lagatzea. Horrela, eta 7/1985 Legeak 22 n) artikuluan xedatzen duena kontuan hartuz, **Tolosako Udaleko Udalbatza litzateke emakida-kontratu honen kontratazio-organoa.**

Beraz, hori kontuan hartuz, **beharrezkoa izango da Udaleko Antolakuntza Batzordearen irizpena, gaia osoko bilkuran eztabaidatu aurretik.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua adjudikatzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea.

Horiek horrela, interes orokorreko arrazoiak tarteko direla, kontuan hartuta gaiak duen garrantzia soziala eta ekonomikoa, eta kirol-instalazioak ixteak izango lukeen eragin kaltegarria ekiditeko, alkate-lehendakari honek **ezohiko eta presako osoko bilkura deitzea proposatzen du**, Udalbatzaren ohiko osoko bilkura ez baita bilduko 2022ko maiatzaren 5a baino lehen.



IV.- IRIZPEN EZA

2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak 126. artikuluan zehazten du informazio-batzordeen irizpenak nahitaezkoak direla eta ez-lotesleak. Hala ere, premiazko kasuetan, osoko bilkurak edo gobernu batzarrak informazio-batzordeak ebatzi gabeko gaien buruzko erabakiak hartu ahal izango ditu, baina, kasu horietan, hartutako erabakiaren berri eman beharko zaio informazio-batzordeari, egiten duen lehen bilkuran. Horrela, proposamen honek informazio-batzordearen irizpena izan ez duenez, **nahitaezkoa izango da hartzen den erabakiaren berri Antolakuntza Batzorde Informatiboari ematea, egingo duen lehen bilkuran.**

Aurreko guztia aintzat harturik, Kiroletako, Idazkaritzako eta Kontuhartzaitzako txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Osoko Bilkurari honako erabaki hauek hartzeko proposatzen diot, haren ebazpenaren kalterik gabe:

PROPOSAMENA

Lehenena.- 2022ko apirilaren 8rako ezohiko eta presako osoko bilkura deitzea, Tolosako Udaleko kirol-instalazioen kudeaketa integralaren emakida-kontratua luzatzeko.

Bigarrenena.- Luzapena atzeraeraginez onartzea 2022ko apirilaren 1etik eta emakidaren kontratu berria formalizatzen den bitartean.

Hirugarrenena.- Luzapena egun kirol-instalazioak kudeatzen dituen KIROLZER SL enpresarekin formalizatzea.

Laugarrenena.- Luzapenean emakida arautu duten pleguak erabiltzea eta, ondorioz, kontratuaren prezioa, urteko kanona, kanon aldagarria eta jatorrizko kontratuaren beste alderdi guztiak modu berean mantentzea.

Bosgarrenena.- Ohartaraztea enpresa kontratistak ezin izango duela inolako kalte-ordainik edo kontratuaren berronkaririk eskatu luzapen honen ondorioz.

Seigarrenena.- KIROLZER SL enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritzea kontratuaren luzapena formalizatzeraren bertaratu dadin gehienez ere 15 eguneko epean.

Zazpigarrenena.- Luzapenaren formalizazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko Kontratatzaitzearen Profilean argitaratzea.

Zortzigarrenena.- Luzapen honen oinarritzako datuak Sektore Publikoko Kontratuaren Erregistroari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begonia Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Jose M^a Villanueva Telleria eta Andu Martinez de Rituerto Arregui.

Aurkako botoak: Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udaltzak gehiengo absolutuz onartu du alkatearen proposamena, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralaren emakida-kontratua luzatzeko.

Besterik gabe, 19:55ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA
O. e.

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IPLE0004-2022-04-08 aparte-premia bilkura akta/2022-04-08 aparte-